



2023rako aurrekontuak onartu ditu Alkizako udalak

Urtarrilaren 31an eginiko osoko bilkuran 2023rako udal aurrekontuak onartu ditu Alkizako udalak. 2023ra begira 700.769 €-ko aurrekontuak izango ditu udalak, horietako 175.000 € inbertsioetara bideratuko direlarik.

Inbertsioen artean hauek azpimarra daitezke: herri-bideak konpontzeko 17.000 €, plan orokorraren idazketari hasiera emateko 35.000 €, Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremuan burutuko diren proiektuetarako 66.000 € eta Erretore-etxean inbertitzeko 32.0000 €. Inbertsioen atalean bi partida berri sortu dira: bata, kirol-gelako makinak berritzeko eta bestea, ondare arkeologikoa berreskuratzeko lanetarako.

Halaber osoko bilkurak onartu du Alkizako eta Villabonako udalen arteko hitzarmena zeinaren bidez alkizarrek tarifa apalagoa ordainduko duten Villabonako Olaederra kiroldegia erabiltzeko. Horrela udalak bide eman dio herritarrek 2022an buruturiko parte hartze prozesuan eginiko eskaerari.

Hartutako beste erabakien artean seinalatzekoa da Alkizako Tokiko Energia Komunitatearen estatutuak onartu direla eta eraketa-akta sinatzeko baimena eman zaiela udal ordezkari. Horrela Energia Komunitatea sortzeko lehen urratsa burutu da.

Alkizako herri-eskolari eta Beleburupe guraso-elkarteari eman zaien diru-laguntza ere onartu da.

Alkizan, 2023ko otsailaren 1ean

UDALA